Erliebea eta Harriak

08. jarduera

HARRI SEDIMENTARIOAK AZTERTZEN

Harri sedimentarioen artean, badaude mota desberdinak ere. Guztiak aurreko harri batzuen zatiez edo substantziez, hau da, sedimentuz osatuak egonda ere, beren sorrera eta itxura ezberdin samarra da. Beraz, beste talde batzuk egin ditzakegu Harri Sedimentarioen barruan.

Zein irizpide aukeratuko dugu horiek sailkatzeko, orain?

- Erlazionatuko al zenuke 1. zutabeko **sedimentazio prozesu** bakoitza 2. zutabeko harri **ehundura batekin**? Kontuan hartu harri batek duen itxura ehunduraren ondorio dela, eta ehundura hori eratze-prozesuen ondorioa dela.

SEDIMENTAZIO PROZESUAK



Sedimentazio kimikoa



Sedimentazio detritikoa



Organismoen sedimentazioa

EHUNDURAK



Beste harri batzuen zatiez, hondakin edo detritusez eratutakoak.

Landare (ikatza) nahiz planktonaz (petrolioa) hondakinez osatuta.



Disoluzio batetik, inguruko tenperaturan, kimikoki prezipitatu eta hazi diren kristalak.

Erliebea eta Harriak

08. jarduera

o Erlazionatuko al zenuke **ehundura** bakoitza **harri talde batekin**?

EHUNDURA	HARRI SEDIMENTARIO TALDEA
A  Kristalak	Detritikoak
B  Organismoen hondakinak	Kimikoak
C  Harri zatiak	Organiko jatorrizkoak